

Programazio didaktikoak egiteko gida

Batxilergoa



Aurkibidea

Aurkibidea	1
1. Sarrera	3
2. Zergatik eta zertarako egin programazioa	4
3. Programazio didaktikoa eta haren elementuak.....	5
3.1 Urteko programazio didaktikoa	6
3.2 Programazio didaktikoaren elementuak	6
3.2.1. Irteera-profila eta haren deskriptoreak	7
3.2.2. Konpetentzia espezifikokoak.....	8
3.2.3. Ebaluazio-irizpideak.....	8
3.2.4. Oinarrizko jakintzak	8
3.2.5. Ikas-egoerak.....	9
3.2.6. Metodologia	10
3.2.7. Curriculuma garatzeko materialak	11
3.2.8. Ebaluazioa eta kalifikazioa.....	12
3.2.9. Ebaluazio-tresnak eta -erremintak	12
4. Programazio didaktikoa berrikustea	15
4.1 Ikasturteko ebaluazioaren emaitzak	15
4.2 Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna	15
4.3 Metodologiak nola lagundu duen ikasgelako eta ikastetxeko giroa hobetzen	16
6. Bibliografia	17
I. Eranskina. Txantiloia, ikasgai edo esparruko urteko programazio didaktikoa egiteko.....	19
II. Eranskina. Txantiloia, programazio didaktikoa ebaluatzeko.....	22
III. Eranskina. Ikas-egoeraren (IE) azalpena	23
4.4 Zergatik ikas-egoerak?	23
4.5 Zer dira ikas-egoerak?.....	23
4.6 Ikas-egoerak definitzeko proposamena	24
IV. Eranskina. Txantiloia, ikas-egoera bat diseinatzeko (IE).....	28
V. Eranskina. Kontrol-zerrenda, ikas-egoera bat diseinatzeko (IE)	30

Dokumentu hau Berritzeguneetako lantalde honek egin du: irakaskuntza-kompetentziak, curriculum-garapenean eta ikaskuntza-metodologia eta inguruetan.



1. Sarrera

Gida hau laguntza modura eskaintzen da Batxilergoko ikasgaien programazio didaktikoa egiteko. 2017an argitaratutako gidaren eguneratzea da (2017koa, [esteka honetan](#)).

Dekretuan zehazturiko printzipioak betetzen ditu, [76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.i](#). Alde batetik, programazio didaktikoaren elementu guztiak egungo araudiaren arabera definitzen ditu; eta, bestetik, elementu horien guztien artean zer-nolako loturak sortzen diren deskribatzen du. Gainera, kontrol-zerrenda batzuk ere eskaintzen ditu, irakasle-taldeek beren burua ebalua dezaten.

Hezkuntza Sailaren asmoa da ikasgela guztietan ikaskuntza-egoerak proposatzea, ikasle bakoitzak bere bizitzako arlo guztietan (pertsonala, akademikoa, soziala eta profesionala) ahalik eta gaitasun handiena izan dezan.

Ildo horretan, beharrezkoa da irakaskuntza-esperientziak eta hezkuntza-ikerketak¹ ikasleen ikaskuntzak errazteko funtsezkotzat jo dituzten alderdiak irakaskuntzako esku-hartzean sartzea ikastetxe guztietan. Hori gertatzeko, ezinbestekoa da ulertzea irakasleak benetako aldaketa-eragile direla.

Beraz, behar-beharrezkoa da ikaskuntza-prozesuak errazten dituzten proposamen didaktikoak bultzatzea eta balioestea, eta, behar denean, aldaketa metodologikoak egiten laguntzea, beharrezko heldulekuak jarrita.

Ikus dezagun zer aurkituko dugun gida honetan:

- Programazioko elementuen definizioa, haien ezaugarri batzuk eta zenbait gogoeta orokor.
- Kontrol-zerrenda batzuk, ikusteko ea benetan jasota dauden programazioko elementu bakoitzaren funtsezko ezaugarriak.

Gida honek programazio didaktikoaren ebaluazioari buruzko atal bat ere badu.

Funtsezkoena da irakasleek programazio-planifikazioaren ezaugarri guztiak zaintzea: egokitasuna, zehaztasuna, malgutasuna eta bideragarritasuna. Hortaz, ez litzateke ikasturte amaieraren zain egon beharko programazioan beharrezko aldaketak egin ahal izateko. Horretarako, programazioa ebaluatzeke adierazleak ere jaso dira.

Gidaren amaieran, hainbat eranskin daude. Eranskin horietan, urteko programazio didaktikoa egiteko eta ikas-egoerak planifikatzeko txantiloiak jasotzen dira, bai eta atal bakoitza osatzeko azalpenen txantiloia ere, programazio didaktikoa ebaluatzeke.

Ikastetxe jakintzak, pedagogia -eta curriculum-erabakiak oinarri hartuta, zehaztuko ditu jakintzagai edo eremuko programazio didaktikoetan curriculuma zehazteko hartu beharreko erabakiak.

Talde honen helburua da dokumentu adostu bat eskaintzea, ikastetxeei ikasgaien edo esparruen programazio didaktikoak egiten laguntzeko.

¹ [La Naturaleza del aprendizaje: Usando la investigación para inspirar la práctica](#). UNESCO (2016).

2. Zergatik eta zertarako egin programazioa

Programazio didaktikoa irakasle-lanaren parte da, eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua hobetzeari lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten ditu, aztertzen du zer kompetentzia garatu nahi diren, eta, ondorioz, zehazten ditu irakasle-talde baten erabakiak ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lor dezaten. Aurretiaz egin beharreko hausnarketa horiek ez baldin badira egokiak eta errealistak, programazioa nekez izango da kalitatekoa, eta emaitza ere hala moduzkoa izango da.

Gida honek ikasturte bakoitzean programazio bakarra egitea proposatzen du ikasgai edo esparru bakoitzerako, ikastetxean hezkuntza maila horretako talde-kopurua eta ezaugarriak edozein izanda ere. Irakasle-talde eta mintegien lana da programazioa egokitzea taldearen/ikasgelaren ezaugarrietara eta premia zehatzetara.


Irakasleen funtzioetako bat ikasgaiak edo esparruak programatzea eta irakastea da (ikus 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa, 91. artikulua; gerora aldatu egin zena abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez); hortaz, programazioak eragin zuzena du irakasleen lanean, eta ikastetxeko irakasle-taldeari jokaleku koherente bat ematen dio. Gainera, aurrez ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan hartutako erabakiak testuinguru batean kokatu eta egikaritu egiten ditu, ondorioz, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitateari ere eragiten dio. Programazio didaktikoa hezkuntza-lanaren lagun izango dugu ikasturte guztian zehar.

Horretaz gain, araudiak garbi dio ikasleei ebaluazio objektiboa bermatu behar zaiela. Ikastetxeek, horregatik, ebaluaziorako prozedurak eta tresnak eta kalifikazio-irizpideak (programazioetan datozen horiek) argitaratu egin behar dituzte (LOMLOE, 28. artikulua); eta horretarako ere egiten da programazio didaktikoa.

Hortaz, irakasle-taldeari dagokio programazioa egitea eta horretarako erabakiak hartzea. Ikastetxe bakoitzak programazio didaktikoaren eredu jakin bat aukera dezake, bakoitzaren autonomiaren baitan, kontuan harturik ikastetxeko plangintza-dokumentuetan hartutako erabakiak lotesleak izango direla irakasle guztientzat, hala baitio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak, 48.2 artikuluan.

3. Programazio didaktikoa eta haren elementuak

Programazio didaktikoa egiteko, 76/2023 Dekretuan definitutako elementuak eta curriculum-egitura hartuko dira kontuan:



Egitura horrekin bat etorri, programazio didaktikoak elementu eta atal hauek izan ditzake:

- funtsezko kompetentziak, irteera-profilaren deskriptoreekin
- ikasgai edo esparruetako konpetentzia espezifikoa
- ebaluazio-irizpideak
- oinarrizko jakintzak
- metodologia
- materialak eta baliabideak
- ebaluazioa eta kalifikazioa
- ikas-egoerak
- programazio didaktikoa berrikustea

Oinarrizko Hezkuntzan bezala, aniztasuna eta inklusibitatea ere kontuan izan behar dira, berariaz ikasle guzti-guztiak artatu behar baitira. Horretarako, IDU printzipioak izango dira erreferente.

Ikasgai edo esparru bakoitzaren programazio didaktikoa egiteko eta ebaluatzeko irizpideak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan adostu eta zehaztuko dira, eta ikasturte hasieran irakasle bakoitzak berrikusi egingo ditu, bere taldearen/gelaren errealitatera egokitzeko.

Ikasgai edo esparru bereko programazio didaktikoa koherenteak izan behar dira etapa guztian zehar. Mintegien eta ikasketaburutzen ardura da hala dela bermatzea.

3.1 Urteko programazio didaktikoa



Programazio didaktikoa: hezkuntza maila jakin bateko jakintzagai edo eremu baterako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza sistematizatua.

Batxilergoko irteera-profila 76/2023 Dekretuko I. eranskinean dator jasota; profil horretan oinarrituko dira programazio didaktikoan islatzen diren curriculum-erabakiak, estrategiak eta irakaskuntzaren orientabide metodologikoak.

Urteko programazio didaktikoa ikaskuntza-egoeretan egituratuta dago (proiektuak, erronkak edo atazak, sekuentzia didaktikoak...).

Programazio didaktikoa	
Klaustroan programazio didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak adostu dira.	
Programazioa arlo, jakintzagai edo eremu hori irakasten duten irakasleek egin dute.	
Xede diren ikasleen ezaugarriak eta aniztasuna kontuan hartu dira.	
Programazioak funtsezko kompetentziak garatzeko beharrezkoak diren erabakiak jasotzen ditu: metodologian, materialetan, ebaluazioan, espazioetan...	
Programazioak elementu hauek jasotzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • funtsezko kompetentziak, irteera-profilaren deskriptoreekin • ikasgai edo esparruetako kompetentzia espezifikoak • ebaluazio-irizpideak • oinarritzko jakintzak • metodologia • materialak eta baliabideak • ebaluazioa eta kalifikazioa • ikas-egoerak • programazio didaktikoa berrikustea 	
Programazioko elementuen artean koherentzia dago.	
Ikas-egoera bakoitzean identifikatzen dira: <ul style="list-style-type: none"> funtsezko kompetentziak kompetentzia espezifikoak irteera-profilaren deskriptoreak ebaluazio-irizpideak hautatutako oinarritzko jakintzak 	

3.2 Programazio didaktikoaren elementuak

Atal honetan programazio didaktikoaren elementuak eta haien definizioak garatzen dira. Halaber, erabakiak hartzen laguntzeko kontrol-zerrenda ereduak proposatzen dira.

3.2.1. Irteera-profila eta haren deskriptoreak

Irteera-profila definitzen duten funtsezko kompetentziak Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko Gomendiotik² eta 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuetatik (aurrerantzean, GJH)³ datoz. Horietako bakoitzak hiru dimentsio ditu: kognitiboa, instrumentala eta jarrerazkoa. Funtsezko kompetentzietako bat eskuratzea lagungarri da gainerako kompetentzia guztiak ere eskuratzeko eta LOMLOEk Oinarrizko Hezkuntzarako eta Batxilergorako ezarritako helburuak lortzeko.

Bizitza osoko ikaskuntzarako funtsezko kompetentzien esparruetatik abiatuta (Europar Batasuneko Kontseilua, 2018)⁴, funtsezko kompetentzia bakoitzerako deskriptore operatibo batzuk definitu dira.

Deskriptore operatiboek, azken batean, deskribatzen dute zer jardun-maila espero dugun Batxilergoa amaitzean.



Irteera-profilak ikasle guztiak Batxilergoa amaitzean lortu beharreko kompetentzien garapen-maila adierazten du⁵.

Irteera-profila, beraz, ikasleei bizitzan zehar aurre egin beharreko erronkei arrakastaz heltzea ahalbidetuko dieten ikaskuntzak artikulatzen dituen elementua da⁶.

Irteera-profila curriculum-arkitekturaren ardatza da, Batxilergoko ikasturteak kohesionatzen dituen matrizea. Horrenbestez, hartan oinarritu behar dira eskola-praktikan hartzen diren gainerako curriculum-erabakiak, estrategiak eta orientabide metodologikoak, eta hura da erreferentzia-elementua ikasleen ikaskuntzen barne- eta kanpo-ebaluazioari begira.



Funtsezko kompetentzien **deskriptore operatiboak** esparru erreferentziala dira, eta esparru horretatik zehazten dira arlo, eremu edo jakintzagai bakoitzaren kompetentzia espezifikoak. Hortaz, bada lotura bat deskriptore operatibo, kompetentzia espezifiko eta kompetentzia horien ebaluazio-irizpideen artean. Horrek ahalbidetzen du irteera-profilean definitutako funtsezko kompetentzien eskuratzeko-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako kompetentziak eta helburuak lortzea.

Maila bereko jakintzagaietako edo eremuetako programazio didaktiko edo urteko programazio guztiak bermatu behar dute irteera-profileko deskriptoreetan zehaztutako funtsezko kompetentzia guztiak garatzen direla. Horretarako, programazioan adierazi behar dira ikas-egoeretan landutako kompetentzia espezifikoek dagozkien deskriptoreak.

² [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604\(01\)&from=SV](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604(01)&from=SV)

³ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

⁴ [Lifecomp](#), [Entrecomp](#), [Digcomp 2.2](#), [RFCDC](#), [Greencomp](#)

⁵ 2. artikulua. Definizioak. 76/2023 Dekretua, 2. artikulua.

⁶ 76/2023 Dekretuaren I eranskina.

3.2.2. *Konpetentzia espezifikoak*



Ikasgai edo esparruetako **konpetentzia espezifikoak**. Arlo eta jakintzagai bakoitzaren oinarritzko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan baliatu ahal izateko ikasleek beharko dituzten jardunak dira. Funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak dira. 76/2023 Dekretuko I. eranskinean dator jasota irteera-profila, eta, konpetentzia espezifiko horiek deskribatzeaz gain, irteera-profilaren deskriptoreen bidez, beste konpetentzia batzuekiko lotura zehazten da⁷.

3.2.3. *Ebaluazio-irizpideak*



Ebaluazio-irizpideak ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak dira, ikas-prozesuaren une jakin batean eta arlo edo jakintzagai bakoitzaren konpetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan⁸.

Irizpide horiek arauemaile dira, eta, beraz, nahitaez bete beharrekoak.

Curriculumean adierazitako ebaluazio-irizpideez gain, ikastetxeak, bere ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartuta, hezkuntza-proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen dituenak gehi ditzake.

Ebaluazio-irizpideak	
Ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpide guztiak jaso dira.	
Ebaluazio-irizpideren bat gehitu behar izan da.	

3.2.4. *Oinarritzko jakintzak*



Oinarritzko jakintzak: ikasgai edo esparruetako berezko ezagutza, trebetasunak eta jarrerak, edozein pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituenak konpetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunekin batera, problemak konpontzeko edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egiteko⁹.

⁷ 2. artikulua. Definizioak. 76/2023 Dekretua, 2. artikulua.

⁸ 2. artikulua. Definizioak. 76/2023 Dekretua, 2. artikulua.

⁹ 2. artikulua. Definizioak. 76/2023 Dekretua, 2. artikulua.

Curriculumean adierazitakoez gain, ikastetxeak, bere ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartuta, hezkuntza-proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen oinarrizko jakintzak gehi ditzake.

Urteko programazioan, ikas-egoeren denbora-antolaketaren arabera, oinarrizko jakintzen denbora-banaketa adieraziko da.

Oinarrizko jakintzak	
Oinarrizko jakintzen hautaketa egokia da kompetentzia espezifikoak garatzeko.	
Ikasturtez ikasturte, curriculumeko oinarrizko jakintza guztiak jaso dira.	

3.2.5. *Ikas-egoerak*



Programazio didaktikoa osatzen duten unitateak dira **ikas-egoerak**, eta curriculum-elementuen garapena egituratzea, sekuentziatzea eta orientatzea dute helburu

Ikas-egoera horiek (orain arte unitate didaktikoak) kompetentzia-proposamenetan oinarrituta garatu behar dira.

Proposamen kompetentzialak

Ataza eta jarduera esanguratsu, garrantzitsu eta artikulatu segida bat dira, asmo jakin batzuk epe jakin batean lortzeko diseinatuta. Iraupen aldetik desberdinak izan daitezke; esate baterako, izan daitezke erronkak, proiektu transbertsalak eta abar.

Kompetentzia-proposamen guztiak ebaluazio-irizpideak lortzera bideratuko dira.

Proposamen kompetentzialak	
Ikasleen kompetentziak garatzera bideratuta daude.	
Hauek sustatzen laguntzen dute: motibazioa, parte-hartzea, autoerregulazioa, konfiantza, elkarrekiko errespetua, autoebaluazioa, koebaluazioa eta abar.	
Ikasleak beren ikaskuntza prozesuaren eragile aktiboak izaten laguntzen dute.	
Ikas-proposamenak dira, testuinguru batean kokaturik daude eta esanguratsuak dira.	
Erronkak planteatzen dituzte, ikasleen maila kognitiborako egokiak eta haien errealiterara eta aniztasunera moldatuak.	
Pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzen dute.	
Metakognizio-jarduerak planteatzen dituzte.	
Ikasleen aniztasunaren tratamendua hartzen dute kontuan: parte-hartzea bultzatzen dute, eta informazioa aurkezteko eta adierazteko askotariko moduak eskaintzen dituzte.	
Ikasleak taldekatzeko eta lankidetzan aritzeko hainbat modu izaten laguntzen dute.	
Hainbat baliabide material eta espazial erabiltzen dira.	

3.2.6. Metodologia



Metodologia: bide edo estrategia bat da, irakaskuntzan eta ikaskuntzan parte hartzen duten elementu guztiak kudeatzeko, antolatzeko edota planifikatzeko hartutakoa.

Ikastetxeak erabaki metodologiko ugari hartu beharko ditu, *“ikaskuntza sakon eta funtzional batera bideratuta, ikasitakoa askotariko ingurunetan balio izateko eta erabiltzeko, denboran irauteko eta orotariko egoeretan baliatu eta problemak konpontzeko”*¹⁰.

Erabiltzen diren metodologiak konpetentziak garatzea sustatu behar dute. Horretarako, irakasle-taldeak hainbat erabaki hartu beharko ditu:

- Ikasleek ikaskuntzan zeregin aktiboa izatea, irakasleak bideratzaile edo bitartekari bihurtzea, gidari edo laguntzaile, ikasgelan garatuko dituen ikaskuntza-esperientzien diseinatzaile izateaz gain.
- Ikasleei aukera ematea askotariko egoerak **sortzeko, erabiltzeko, aplikatzeko eta komunikatzeko**, eta ez, soilik, jasotako ezagutzak edo informazioak erreproduzitzeko (jakintza desberdinak beren artean erlazionatzea, jakintza horiek arazo edo erronka bat konpontzeko erabiltzea, haiei buruz hausnartzea eta hitz egitea, idaztea, gainerako ikaskideei erakustea, ...).
- Ebaluazioa ikaslearen ikaskuntza-prozesuan txertatzea.
- Eskola-testuinguruak, -espazioak, -denborak eta -taldeak **antolatzeko prozedurak berrikustea**.
- Saiatzea **berdinen arteko lankidetzan** izan dadin estrategia didaktiko lehenetsia. Hau da, elkarrizketa, eztabaida eta desadostasuna, ezberdintasunak errespetatzea, entzuten jakitea, besteen ekarpenaz aberastea eta nor bere onena eskaintzeko bezain eskuzabalak izatea.
- **Eskola-ingurune segurua** izatea, ikasle guztiak ahalik eta garapen handiena izan dezaten.
- Jarduerak sustatzea etapako helburuak garatzeko: balioetan hezteak, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza izan jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik edo iritziagatik edo bestelako baldintza pertsonal zein sozialengatik-, prebentzioa nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zein jazarpenaren eta eskolako ziberjazarpenaren aurrean, eta bakearen eta giza eskubideen kultura.

*“Ikastetxeek etapa honetako ikasle guztientzako proposamen pedagogikoak egingo dituzte, ikasle horien aniztasuna kontuan hartuta. Era berean, zer metodo erabili erabakitzeko orduan, kontuan hartuko dute ikasleek askotariko erritmoak dituztela ikasteko, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatu behar dela, talde-lana sustatu eta ikerketa-metodo egokiak aplikatuko dituztela”*¹¹.

¹⁰ 76/2023 Dekretuko 6. artikulua. Pedagogia-printzipioak

¹¹ 76/2023 Dekretuko 6. artikulua. Pedagogia-printzipioak

3.2.7. *Curriculuma garatzeko materialak*



Material didaktikoak edozein eratakoak izan daitezke. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan erabiltzen dira berariaz, ikasleei edo irakasleei laguntzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa egiten.

Azken urteotan, baliabideei garrantzi handia eman zaie. Horien artean aipatzekoak dira Hezkuntza Baliabide Irekiak (aurrerantzean, HBI): UNESCOk bultzatzen ditu, errazago izan dadin kalitatezko hezkuntza-materialak sortzea, erabiltzea, aldatzea eta birbanatzea. Creative Commons lizentziak baitituzte. Metodologia aktiboak erabiltzeko lagungarriak dira, eta ikaskuntza pertsonalizatzea errazten dute.

Nolanahi ere, baliabide eta material didaktikoen Batxilergoko Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoa bete behar dute; dekretu horretan proposatutako hezkuntza-eredu pedagogikoarekin koherenteak izan behar dute, eta ekitate-, inklusio- eta gizarte-kohesioko printzipioak bete behar dituzte, eskola inklusiboaren oinarri gisa.

Diseinatu eta sortzen diren baliabide eta material pedagogiko eta didaktikoen aurrera egiten utzi behar diete ikasle guzti-guztiei, eta proposamen dibertsifikatuak eskaini behar dizkiete irudikapenean, adierazpidean eta konpromisoan. Irizpide hauei jarraitu behar diete:

- genero-ikuspegia
- aniztasun guztiekiko errespetua: generoa, afektibo-sexuala, kulturala, etnikoa...
- materialen eskuragarritasuna hobetzea eta areagotzea eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako oztopoak minimizatzea eta ezabatzea
- zorrotasun zientifikoa
- hizkuntza-egokitasuna
- ikaskuntzak pertsonalizatzea
- materialen euskarrien aniztasuna

Ikastetxeek autonomia dute Batxilergorako materiala eta baliabide didaktikoak sortzeko eta aukeratzeko, indarrean dagoen araudian eta aurretik zehaztutako irizpideetan ezarritakoaren arabera.

Curriculuma garatzeko materialak	
Lehenetsi egin dira ikasleen funtsezko kompetentziak garatzeko baliabide egokiak eta, GJHeK jaso bezala, jasangarriak.	
Materialek kontuan hartzen dituzte genero-ikuspegia eta kultura-aniztasuna.	
Erabiltzen diren baliabideak askotarikoak dira, ikasleen aniztasunari erantzuteko.	
Askotariko baliabide digital esanguratsuak aukeratu dira, informazio-alfabetatzea eta kompetentzia digitalaren eta kultura digitalaren garapena sustatzeko.	
Materialek egiletza errespetatzen dute.	
Lehenetsi egiten da egiletza errespetatzen duten eta Creative Commons lizentzia duten materialak erabiltzea.	

3.2.8. Ebaluazioa eta kalifikazioa



Ebaluazio-irizpideak dira ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko erreferentea, eta arlo edo jakintzagai bakoitzaren konpetentzia espezifikoetara lotuta daude.

Beraz, konpetentzia espezifikoak ebaluazio-irizpideen bidez ebaluatzen dira. Irizpide horiek dira erreferente nagusia ikaskuntzak baloratzeko, emaitzak eta prozesuak neurtzen baitituzte, modu ireki eta malgu batean, eta curriculumaren baitan.

Ebaluazio-irizpide horiek guztiek batera konpetentzia espezifikoaren garapen-mailari buruzko informazioa ematen digute, eta, ondorioz, irteera profilari dagozkion funtsezko konpetentziena ere bai. Garapen-maila hori da, etapako helburuekin batera, Batxilergoaren amaierako erreferentea.

Batxilergoko ikasleen ebaluazioak globala, jarraitua eta hezigarria izan behar du eta ikasgaien edo esparruen arabera bereizita, eta kasuan kasuko konpetentzien garapen-maila eta ikas-prozesuan izandako aurrerapena izan behar ditu erreferentziazat. (76/2023 Dekretua, 28. artikulua).

Ebaluazioa prozesu konplexua da: hortik abiatuta datuak bildu, aztertu eta, analisi horren arabera, erabakiak hartzen dira.

3.2.9. Ebaluazio-tresnak eta -erremintak



Ebaluazio-tresnak. Ikasleen ekoizpenak irakasleek diseinatzeko eta ikaskuntzaren ebidentziazat jaso.

Konpetentzien ebaluazioak askotariko tresnak erabiltzea eskatzen du, ikasle guztiak behar bezala baloratzeko. Hartara, ebaluazio-tresnak ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara eta espezifikoetara egokitu behar dira, baita ikas-egoeretara ere. Ebaluazio-tresnak dira:

- aurkezpenak
- elkarriketak
- idatzizko probak
- galdetegiak
- ekoizpenak
- etab.



Ebaluazio-erremintak ebaluatzaileak –irakaslea, ikaslea, beste inor– informazioa eta ebidentziak biltzeko eta aztertzeko erabiltzen dituen dokumentuak edo objektuak dira. Ebaluazio-tresnetatik lortutako informazioa biltzeko eta aztertzeko aukera ematen dute, ikaskuntzaren lorpen-maila balioesteko.

Beraz, ebaluazio-tresnen bidez jasoko dira ikasleen ekoizpenak eta ebaluazio-erreminten bidez, ebaluatu. Zenbait ebaluazio-erreminta:

- errubrika
- ebaluazio-itua (diana)
- kontrol-zerrendak
- balioespen-eskala

Ebaluazio-tresnak eta -erremintak	
Ebaluatzeko aukeratutako tresnak eta erremintak koherenteak dira ebaluazio-irizpideekiko.	
Erabilitako ebaluazio-tresnak askotarikoak dira.	
Ebaluazio-tresnen bidez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ebidentziak jaso dira.	
Ebaluazio-erremintak baliagarri dira ebidentziak aztertzeko.	
Ikasleek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ebaluazioan parte hartzea ahalbidetzen duten erremintak (autoebaluazio eta koebaluaziorako) aurreikusi dira.	

Ebaluaziotik ondorioztatuak

Ebaluazioak, nagusiki, ikasleen aurrerapenak identifikatu behar ditu, eta baita hezkuntza-prozesuan ikasleek izan ditzaketen zailtasunak ere, prozesua planifikatzean erabaki egokiak hartu ahal izateko. Erabaki horiek, beraz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan jasotako ebidentziak aztertzearen ondorio dira.

Batxilergoan zehar, irakasle-taldeek ikasle bakoitzari buruzko informaziorik garrantzitsuena jaso eta hurrengo ikasturtera eramango dute. Horretarako, ikastetxeak erregistro bat edukiko du. Bertan jasoko dira kompetentzien lorpen-mailari buruzko datuak, edo zer neurri indargarri eta lagungarri eman zaien, besteak beste.

Ebaluaziotik ondorioztatuak	
Hartutako erabakiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua berrikustera, doitzera eta hobetzera bideratuta daude.	
Hartutako erabakietan: <ul style="list-style-type: none"> • Jaso dira indartze-neurriak. • Jaso dira laguntza-neurriak. 	

Kalifikazioa



Kalifikazioa ebaluazio-prozesuaren ondoren hartzen den erabakietako bat da. Prozesu horren adierazpen kodetua da, araudiak ezarritako balorazio-eskalaren arabera.

Batxilergoari buruzko dekretuak ezartzen duenez (76/2023 Dekretua¹²), ikasgaietako edo esparruetako ikaskuntzak kalifikatzean, kasuan kasuko konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak izango dira kontuan. Ikastetxe bakoitzak bere kalifikazio-irizpideak definitu behar ditu. Lehenengo eta bigarren mailen amaieran, eta ikasturte bukaerako ebaluazioa aintzat hartuta, irakasle-taldeak erabakiko du zer ondorio duten ikasleen kalifikazioek, hau da, irakasle-taldeak erabakiko du ikasleen promozioaz edo titulazioa-eskuratzeaz.

Ikasleek eta familiek hezkuntza-prozesuaren hasieratik jakin behar dute zein diren: ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ikas-prozesua ebaluatzeko prozedurak, kalifikazio-irizpideak eta ikasleen promozio-edo titulazio-erabakietan aintzat hartuko diren irizpideak. Ikastetxeek alderdi horien guztien berri emango diete ikasleei eta familiei ikasturte bakoitzaren hasieran.

Kalifikazioa	
Ikasleek eta beren familiek hezkuntza-prozesuaren hasieratik ezagutzen dituzte ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ikas-prozesua ebaluatzeko prozedurak, kalifikazio-irizpideak, eta promozio- eta titulazio-irizpideak.	
Kalifikazioan, kontuan hartu dira jakintzagaiko edo esparruko konpetentzia espezifiko guztien ebaluazio-irizpideak.	

¹² 76/2023 Dekretuko 28. artikulua. Ikaskuntzen ebaluazioan

4. Programazio didaktikoa berrikustea

Programazio didaktikoa irakasle-taldearen berriazko tresna da curriculumeko jakintzagai edo eremu bakoitza planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko curriculum-zehaztapenaren arabera diseinatuta dago, eta curriculumak ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokitzea ahalbidetzen du.

Programazioa dokumentu dinamikoa da. Diseinatutako programazioa praktikan jarri ondoren, ebaluatu egiten da, jakiteko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak kalitatekoak izan diren, eta, hala badagokio, programazioa berriz formulatzeko eta hobetu ahal izateko.

Horregatik, ezinbestekoa da geure buruari programazioaren funtsaz galdetzea:

- Egokia al da ikasturte horretan dena delako ikasgaia edo esparrua ondo ikasteko?
- Nahikoa zehatza al da irakasleen lana gidatzeko?
- Beharrezko aldaketak ezartzea ahalbidetzen du? Malgua da?
- Proposatzen duena bideragarria da?

Galdera horiei erantzuteko ez da ikasturte amaiera arte itxaron behar; beharrezko doikuntzak dagokienean egin behar dira, etengabeko ebaluazioaren bidez. Doitze horiek inolako aldaketarik baldin badakarte ikasleen ebaluazioan eta kalifikazioan, ikasleei eta familiei ere jakinarazi beharko zaie, arrazoiak azalduz.

4.1 Ikasturteko ebaluazioaren emaitzak

Programazio didaktikoa ebaluatzeko irizpide bat da ikustea ea zenbateraino lagundu duen ikasleek ikas dezaten. Beharrezkoa da ebaluazio-saio guztietan, gutxienez, ikaskuntzaren bilakaera aztertzea.

Lehenengo ebaluazio-saioan, lortutako emaitzak aurreko urtekoekin alderatu ahalko dira, eta, hurrengoetan, aurreko ebaluazioetan lortutakoekin. Horrek zenbait alderdi ezagutzea ahalbidetuko du: ea eskakizunak ongi doitu diren ea emaitzak itxaropentsuak diren ikasleentzat eta abar. Azterketa horri esker erabaki ahalko da ea beharrezkoa den aldaketak egitea eta programazioaren zenbait elementu egokitzea.

4.2 Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna

Irakasle-taldeak bere buruari galdetu beharko dio ea hartutako erabaki metodologikoak bat datozen ikasleen konpetentziak garatzen dituzten ikaskuntza-prozesuen diseinuarekin. Halaber, programazioa bera ebaluatzeko oinarritzko irizpide bat da berrikustea ea erabaki metodologiko horiek egokiak diren eta ea praktikan jarri ondoren noraino iritsi garen. Azterketa hori egitean aintzat hartu beharko dira beti ikastaldea eta ikastetxearen testuinguruaren araberrako bestelako aldagaiak.

Metodologia berrikustean, funtsezkoa da aztertzea ea lagundu duen gelako eta ikastetxeko giroa hobetzen.

4.3 Metodologiak nola lagundu duen ikasgelako eta ikastetxeko giroa hobetzen

Gelako eta ikastetxeko giroa hobetu nahi badugu, funtsezkoa da aztertzea ikasgai edo esparru bakoitzak zer ezaugarri eta planteamendu metodologiko dituen.

Ikaskuntza gerta dadin, giro ona behar da, bai elkarrekin ondo konpontzeko, bai lanerako: errespetua, ikasgelan garatzen ari denarekiko interesa, helburu partekatuak eta abar.

Giro hori lortuko badugu, ikasgela kudeatzeko planteamendu parte hartzaile eta demokratikoak behar dira, eta, irakaskuntzaren bidez, ikasleak ikasten jarraitzera kitzikatu eta akuilatu behar dira.

Planteamendu horiek ikastetxean adostuta egon behar dute, eta Hezkuntza Proiektuan agertu behar dira.

Hezkuntza-ingurune egiazko, aberats eta iradokitzaileak diseinatu behar dira, ikasleak benetako jardueretan murgilduko dituztenak, beren jakintzak praktikan jarri eta jakintza berriak sortu ahal izan ditzaten, eta elkarrekin bizitzen eta taldean lan egiten ikasi ahal izan dezaten. Testuinguru metodologiko horretan, programazio didaktikoa, kanpoko kontrol burokratiko eta mekanikoa izatetik, kide anitzeko prozesu konplexuagoa izatera pasatzen da, hezkuntzako errealitatea ezagutzeko eta hari buruzko gogoeta egiteko.

Ikasgelako programazioa dokumentu bizia da, irakasleak ikasturte hasieran egiten duena eta ikasturtean zehar garatzen duena. Irakasleek ikasgelako programazioa eguneratuta eduki beharko dute. Beraz, beharrezkoa da aparteko dokumentu batean erregistraturik eta deskribaturik uztea ikasgelako programazioaren berrikuspenaren alderdirik garrantzitsuenak, bai eta hobekuntza-proposamenak ere, halakorik egin behar bada behintzat.

Programazio didaktikoa berrikustea	
Programazio didaktikoak bat etorri behar du ikastetxeko curriculum-erabakiekin.	
Programazioak ikasleen ezaugarri espezifikoak hartzen ditu kontuan.	
Programazioaren barruan aurreikusi dira denbora-tarte batzuk, zenbait elementu berrikusi eta doitzeko.	
Programazioari esker, eskolak malguagoak dira ikasleen premia eta interesetara ahalik eta gehien egokitzeko.	
Ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak argiak izan dira, ikasleek bazekiten zein ziren, eta baliagarriak izan dira ikusteko ikasleek nola egiten duten aurrera.	
Ikasgelako giroari esker, elkarreragina hobea da ikasleen artean eta ikasle eta irakasleen artean, eta samurragoa da ikaskuntza autonomia sustatzea eta ikasleek beren kompetentziak garatzea.	
Gogoeta berariazko dokumentu batean jaso da.	

6. Bibliografia

76/2023 DEKRETUA (maiatzaren 30ekoa), Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA

BERRITZEGUNE NAGUSIA (2017). [Programazio didaktikoak prestatzeko gida. Batxilergoa](#). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.



Eranskinak

I. Eranskina. Txantiloia, ikasgai edo esparruko urteko programazio didaktikoa egiteko

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:		Kodea:		Ikasturtea:	
Etapia:		Maila:			
Ikasgaia edo esparrua:		Irakasleak:			
Programazio didaktikoa arrazoitzea					
<p>Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, <i>ikasgelaren testuingurua</i>, <i>ikastetxeko proiektuak</i>, <i>urteko memoriatik datozen hobekuntza-proposamenak</i>, <i>programazioak zer ekarpen egiten duen irteera-profila lortzeko</i>, <i>eta abar</i>.</p>					

Ikasgaiaren edo esparruaren curriculum-plangintza			
Ikas-egoeren izenburua eta deskribapen laburra	Konpetentzia espezifikoak (Adierazi zein diren irteera-profilaren deskriptore operatiboak)	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
Lehenengo hiruhilekoa			
Bigarren hiruhilekoa			
Hirugarren hiruhilekoa			

Erabaki metodologikoak

Ebaluazio-sistema. Ebaluazioari buruzko erabakiak, ebaluazioaren ondorioak eta kalifikazio-irizpideak

Ebaluazioa

- helburua: hezigarria, egiaztatzailea
- noiz: hasieran, prozesuan, amaieran
- ebaluazio-tresnak eta –erremintak
- eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa

Ebaluazioaren ondorioak

- Kalifikazioa
- Programazio didaktikoa berrikustea eta doitzea
- Neurri lagungarriak eta indargarriak hartzea

Kalifikazio-irizpideak

Ikastetxearen autonomiaren baitan, zenbait erabaki hartu behar dira:

- ebaluazio-irizpideen arabera jardun-mailak
- irizpide horiei dagozkien ebaluazio-tresnak eta –erremintak.

II. Eranskina. Txantiloia, programazio didaktikoa ebaluatzeko

Ikasgaia edo esparrua

Programazio didaktikoa berrikusteko datak:

1. ebaluazioaren data	2. ebaluazioaren data	3. ebaluazioaren data	...	Ikasturtea amaitzeko eguna

Ebaluazioaren ondorioak (neurri indargarriak, antolamenduaren egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikustea, errekupeazio-sistema...)

Ebaluazio-adierazleak	Ikasturtean zehar (ebaluazio jarraitua)	Ikasturte amaieran (azken ebaluazioa)
1) Ebaluazioaren emaitzak jakintzagaian edo esparruan	Emaitzak nahi bezalakoak ez badira, doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira:	Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:
2) Erabaki metodologikoen koherentzia eta egokitasuna	Erabaki metodologikoen koherentziarik edo egokitasunik ez dutela balioesten bada, doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira:	Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:
3) Metodologiaren eragina ikastetxeko eta ikasgelako giroan	Metodologiak ikasgelako eta ikastetxeko giroa hobetzen laguntzen ez duela baloratzen bada, doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira:	Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:

Sinadura (ikasgaiko edo esparruko irakasleak)

III. Eranskina. Ikas-egoeraren (IE) azalpena

4.4 Zergatik ikas-egoerak?

Ikas-egoera batek ibilbide didaktiko bat ezartzen du. Puntu jakin batetik abiatu (testuinguru jakin batean kokatuta, izan daiteke arazo bat, edo erronka, desafio edo galdera bat), eta, amaieran, azken produktu bat sortzeko.

Kontua da ikasleek etapa honetako irteera-profila lortzea. Horretarako, irakasleak sustatuko du ikaskuntza izatea **testuingurukoa, esanguratsua, garrantzitsua** eta **integratzailea**. Ikas-egoerek ikuspegi kompetentziala garatzen laguntzen dute, testuinguru egituratu batean jakintzak eskuratzeko, aktibatze eta erabiltzeko.

4.5 Zer dira ikas-egoerak?

Dekretuaren definizioa:

“ikasleei funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak garatzea eskatzen dieten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzeko eta garatzen laguntzen dietenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak aukera ematen du konpetentzien araberako ikaskuntzaren ikuspegiaren oinarrian dauden jakintza eta gaitasunak uztartzen dituzten egoeratan oinarrituta egituratzeko ikasturte-programazioa edozein ikasgai edo esparrutan” (III. eranskina). 76/2023 Dekretua, 2. artikulua. Definizioak, i puntua.

4.6 Ikas-egoerak definitzeko proposamena

Datu orokorrak	
Izenburua	Lizentzia
Komeni da IEren izena erakargarria eta pizgarria izatea.	
Ikasgaiak edo esparrua	Ikasturtea
Ikas-egoeran garatu beharreko ikasgaiak edo esparruak	
Zenbat saio	
Zenbat saiotan garatuko den IE.	
Ikas-egoeraren kokapena	
<p>Testuingurua: Lehenengo paragrafoan ikas-egoeraren testuingurua deskribatuko da. Horretarako, kontuan hartuko ditugu XXI. mendeko erronkak edo/eta Garapen Jasangarrirako Helburuak alde batetik, eta, bestetik, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta gelan aurkitu dugun errealitatea edo/eta ikasleen interesak.</p> <p>Abiapuntua: IEren arazoa, erronka edo galdera</p> <p>Azken ekoizpena: Ikasleek egingo duten azken ekoizpena aipatuko da, hori izango baita ebaluazio-prozesurako ebidentzietako bat.</p>	

Ondoren, IE planifikatzea dator (atazak, jarduerak, azken produktua...), azaldutako argudiaketa curricularrarekin bat etorritz.

Argudiaketa curricularra
Funtsezko kompetenziak
IEn garatzen diren funtsezko kompetenziak besterik ez aipatu.
Deskriptore operatiboak
IEn jorratzen direnak besterik ez aipatu.
Kompetentzia espezifikoak
Landuko diren kompetentzia espezifikoak, betiere Dekretuan xedatutakoaren arabera.
Ebaluazio-irizpideak
Jaso ebaluazio-irizpideen enuntziatua eta hurrenkera-zenbakia Dekretuak dakarren bezala.
Oinarrizko jakintzak
Adierazi aukeratutako multzoa eta oinarrizko jakintzak.

Atazen/jardueren sekuentzia laburtua (irakasleentzat)

Atazak/Jarduerak IE baten faseen arabera planifikatzea.

Hasierako fasea

Fase honetako ataza/jarduera motak:

- Inguruneari taldean erreparatzeko atazak/jarduerak: ikasleentzat esanguratsua den errealitatea aztertzea, arazo-egoerak planteatzea.
- Parte-hartzea eta motibazioa sustatzekoak: aurretiazko ezagutzak identifikatzea, interesei lotzea eta jakin-mina eta ikasteko gogoia eragiten dituztenak.
- Proposamena aurkeztekoak: ikasleei azaltzeko ikas-helburuak, ebaluazio-irizpideak eta planifikazio-jarduerak.
- Ikasleak antolatzeko atazak/jarduerak: helburu dute lantaldeak sortzea eta rolak eta funtzioak banatzea.

Garapen-fasea

Fase honetako ataza/jarduera motak:

- Informazio berria aurkitzeko, antolatzeko eta ulertzeko atazak/jarduerak.
- Eskuratutako jakintzak erabiltzeko atazak/jarduerak.
- Sintesia, abstrakzioa eta gogoeta sustatzekoak.
- Autoerregulazioa eta metakognizioa bultzatzekoak.

Azken fasea

Fase honetako atazak/jarduerak motak:

- Azken ekoizpena sortzeko atazak/jarduerak.
- Azken ekoizpena zabaltzekoak.
- Aplikaziorako atazak/jarduerak.
- Landutakoa antzeko beste testuinguru batzuetara transferitzekoak.
- Ebaluazio- eta metakognizio-atazak/jarduerak.

Metodologia
<p>Azaldu:</p> <p>IE garatzeko printzipio eta estrategia metodologiko egokienak (proiektuetan oinarrituta ikastea (POI), arazoetan oinarrituta ikastea, ikerketan oinarrituta ikastea, jolas modura planteatzea...)</p> <p>Taldeak egiteko moduak (banaka, binaka, talde txikitan...) eta espazioaren antolaketa (IKT gela, laborategia, etorkizuneko gela, liburutegia...).</p> <p>Irakasleen antolaketa (esku-hartzeak eta funtzioak, koordinazioa, koirakaskuntza)</p> <p>Baliabideak: bai pertsonak, bai materialak (digitalak, ikono-grafikoak, enpresak, museoak, erakundeak, etab.)</p>
Ebaluazioa
Ebaluazio-irizpideak
<p>Ebaluazio-irizpideak adierazi.</p> <p>Ebaluazio-irizpideak. Ikaskuntza prozesuaren une jakin batean, jakintzagai edo esparru bakoitzaren konpetentzia espezifikoen aipaturako jardueretan edo egoeretan ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak dira.</p>
Ebaluazio-tresnak
<p>Ikasleen ekoizpenak dira, ikasitakoaren ebidentzia gisa balio dutenak (paper-zorroa edo portfolioa, aurkezpena, ahozko eta idatzizko probak, maketa...).</p>
Ebaluazio-erremintak
<p>Ebidentziak biltzeko eta aztertzeko dokumentuak. Irakasleek edo beste edozein eragile ebaluatzailek erabiltzen dituzte: erkatze-zerrenda, errubrika, balorazio-eskala, ebaluazio-itua (diana), etab.</p> <p>Ebaluazioa egiten duten eragileak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Autoebaluazioa • Koebaluazioa

IV. Eranskina. Txantiloia, ikas-egoera bat diseinatzeko (IE)

Datu orokorrak	
Izenburua	Lizentzia
Ikasgaiak edo esparruak	Maila
Zenbat saio	
Ikas-egoeraren kokapena Testuingurua: Abiapuntua: Azken produktua:	

Argudiaketa curricularra				
Funtsezko kompetenziak	Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
Ikasgaiak edo esparruak				

Argudiaketa curricularra		
Printzipioak	Antolaketa	Baliabideak

V. Eranskina. Kontrol-zerrenda, ikas-egoera bat diseinatzeko (IE)

Datu orokorrak	
Azaleko orria	
IEren izena erakargarria da, gogoia pizteko modukoa.	
Creative Commons lizentzia erabili da (gomendagarria).	
Beste norbaitek sortutako IE bat hartu eta aldatuz gero (lizentziak aukera hori ematen baldin badu), iturria aipatu behar da.	
Datuak	
Aipatu dira inplikaturako gaiak edo esparruak.	
Adierazi dira zer mailatatarako den IE.	
Adierazi dira zenbat saio behar diren.	
Ikas-egoeraren kokalekua	
IEa testuinguru batean kokatu da.	
Azaldu da arazoa, erronka edo erantzun beharreko galdera.	
Adierazi da zein den azken ekoizpena.	

Argudiaketa Curricularra	
Aipatu dira IEn garatzen diren funtsezko kompetentziak.	
Jaso dira funtsezko kompetentzia horiei dagozkien deskriptore operatiboak .	
Jaso dira landu beharreko kompetentzia espezifikoak .	
Zehaztu dira ebaluazio-irizpideak .	
Adierazi dira landuko diren oinarrizko jakintzak .	

Hemendik aurrera *ataza* terminoa orokorrean erabiliko da.

Atazen sekuentzia		
Hasierako fasea	Bai	Ez
Proposatu dira inguruneari taldean erreparatzeko atazak: ikasleentzat esanguratsua den errealitatea aztertzea edota arazo-egoerak planteatzea.		
Proposatu dira parte-hartzea eta motibazioa sustatzeko atazak: aurretiazko ezagutzak identifikatzea, interesekin lotzea eta jakinmina eta ikasteko gogoia eragitea.		
Antolatu dira proposamena aurkezteko atazak: ikasleei azaltzeko ikas-helburuak, ebaluazio-irizpideak eta planifikazio-jarduerak.		
Proposatu dira ikasleak antolatzeko atazak: lantaldeak sortzea eta rolak eta funtzioak banatzea.		

Garapen-fasea		
Proposatu dira informazio berria aurkitzeko, antolatzeko eta ulertzeko atazak.		
Proposatu dira eskuratutako jakintzak erabiltzeko atazak.		
Proposatu dira sintesia, abstrakzioa eta gogoeta sustatzekoak.		
Proposatu dira autoerregulazioa eta metakognizioa bultzatzeko atazak.		
Azken fasea		
Jaso dira azken ekoizpena gauzatzeko atazak.		
Jaso dira azken ekoizpenaren berri zabaltzeko atazak.		
Jaso dira ekoizpen hori aplikatzeko atazak.		
Jaso dira ekoizpena antzeko testuinguruetara transferitzeko atazak.		
Proposatu dira ebaluazio- eta metakognizio-atazak.		

Metodologia		
Printzipioak		
Adierazi dituzu IE garatzeko printzipio eta estrategia metodologikoak.		
Antolaketa		
Adierazi duzu nola egingo dituzun taldeak eta espazioa nola antolatuko duzun.		
Adierazi duzu nola antolatuko dituzun irakasleak.		
Baliabideak		
Aipatu dituzu erabiliko dituzun baliabideak.		

Ebaluazioa		
Jaso dira ebaluazio-irizpideak.		
Adierazi da zer ebaluazio-tresna (ebidentziak)erabiliko den.		
Jaso dira ebidentziak baloratzeko ebaluazio-tresnak.		

Hainbat eragilerekin antolatu dira ebaluazio-jarduerak: autoebaluazioa eta koebaluazioa.